

**M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA
ANDREA, OIARTZUNGO UDALAREN
IDAZKARI NAIZENAK**

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2020ko maiatzaren 27an, beste batzuen artean, ondorengo Akordioa hartu zuela:

**“KIROL KLUBEN ETA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDURAKO
2020KO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK COVID-10AK ERAGINDAKO
EGOERAGATIK ALDATZEA ETA ORDAINKETAREN ZATI BAT EGITEA.**

2020ko otsailaren 26an Udal Osoak “2020an Oiartzungo Kirol- klubek edo -elkartek funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen. Argitalpena udal web orrian eta martxoaren 6ko GAOn egin ondoren, 30 egun baliouduneko epea ireki zen eskaerak egiteko.

Martxoaren 14ean, aldiz, COVID-19 dela eta sortutako alarma egoeraren ondorioz, 463/2020 E. Dekretua onartu zen eta bere Hirugarren Xedapen Gehigarrian, 465/2020 E. Dekretuak emandako idazketarekin, prozedura administratiboen epeak bertan behera utzi ziren.

Kirol teknikariaren txostenaren baitan, alarma egoera luzatzen ari denez, hainbat kirol - klub eta -elkartek adierazi dute egoera zailean daudela ohiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko. Horregatik, epe administratiboak etenda egon arren, proposatzen da salbuespeneko egoera honen aurrean dirulaguntzei irtenbidea ematea eta prozedura aldatzea, hau da, dirulaguntza orain ebaztea eta kirol- klub eta elkarte horiei ehuneko batean dirua aurreratzea.

Nolanahi ere, dirulaguntza klubei aurreratu arren, administrazio epeak zabalik egongo dira, eta Errege Dekretua -edo haren luzapenak, halakorik bada- indargabetzen denean, etendako epeak zenbatzen jarraituko dira. Epe berri horretan beste eskabideren bat badago, eskaera kontuan hartuko litzateke eta, ondorioz, puntuazioak eta aurretik emandako dirulaguntzak berriz kalkulatu eta egokituko lirateke.

Bestalde, oinarrietan dirulaguntzaren ebazpenarekin batera %80aren ordainketa jasotzen den arren, eta gainerako %20arekin batera gastua justifikatzean, ordainketa hori aldatzea eta dirulaguntzaren %50 ebazpenarekin batera aurreratzea proposatzen da, eta gainontzekoa gastua justifikatzerakoan.

Hori esanda, egun Oiartzungo udalean sei eskaera aurkeztu dira. Eskaerak aztertuta, honako puntuazioa lortu du elkarte bakoitzak, eta ondorioz, honako dirulaguntza ematea proposatzen da:

OIARTZUN KIROL ELKARTEA	973,5	27.444,01€
OIARPE KIROL ELKARTEA	262	7.386,06€
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	258,5	7.287,39€
HAURTZARO KIROL ELKARTEA	191	5.384,49€
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T	115,5	3.256,07€
TXIMELETA KIROL ELKARTEA	115	3.241,97€

Aurkeztutako proposamenari aldeko diktamena eman zion 2020ko maiatzaren 19an egindako Gazte, Kirol eta Hezkuntza Ez Arautua Batzordeak.

Guzti hau kontuan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

LEHENA: 2020an Oiartzungo Kirol-klubek edo elkarteek funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak aldatzea eta %50ari dagokion ordainketa ebazpenarekin batera aurreratzea eta irailaren 30a baino lehen gastuak justifikatu ondoren, %50a ordaintzea.

BIGARRENA: Orain arte jasotako eskaerak kontutan hartuta dirulaguntzak honela banatzea:

ELKARTEA	%100	50%	50%
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	27.444,01€	13.722,00€	13.722,01€
OIARPE KIROL ELKARTEA	7.386,06€	3.693,03€	3.693,03€
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	7.287,39€	3.643,70€	3.643,69€
HAURTZARO KIROL ELKARTEA	5.384,49€	2.692,25€	2.692,24€
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T.	3.256,07€	1.628,03€	1.628,04€
TXIMELETA KIROL ELKARTEA	3.241,97€	1.620,99€	1.620,98€
GUZTIRA	54.000,00 €	27.000,00 €	27.000,00 €

Halaber, administrazio epeak zabaltzean beste eskabideren bat jasoko balitz kontutan hartuko litzateke eta puntuazioak eta ondoriozko dirulaguntzaren kopuruak berriz kalkulatu eta egokituko lirateke.

HIRUGARRENA: Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 54.000 euroko gastu onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2020 urteko aurrekontuko 1 1102.481.341.00.02 (A-178/2020) zenbakidun partidaren kontura.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Oiartzunen, 2020ko maiatzaren 28an.